

KUTSADURA ELEKTROMAGNETIKOAREN AURKAKO EUSKAL HERRIAKO **KOORDINAKUNDEAREN ADIERAZPENA**

Kaltetuen elkarrekin, auzo-elkarrekin, pertsona elektrohipersentiberekin, talde ekologistekin, batzorde zientifikoekin, aditu eta abokatuekin bat, **HONAKO HAU** adierazi nahi dugu:

- **Munduko biztanleria eta zientifiko independenteak kezkatuta daude eremu elektromagnetikoen eraginpean kronikoki eta egunero egoteak dakartzan osasun-arriskuengatik** (Behe-maiztasunean: goi-tentsioko lineak, transformadore-estazioak, zonako transformadoreak. Eta mikrouhin pulsatzaileen goi-maiztasunean eta maiztasun ertainean: sakelako telefonoetarako antenen onarri-estazioak, WIFI, WIMAX, haririk gabeko telefonoak, femtoelaxkak, pikoantena etab.).
- Bereziki gaude kezkatuta **nerabe eta umeengan epe luzean izan ditzaketen ondorioengatik**, burmuineko ehunen heldutasun-faltagatik eta uhinek ehunetan sartzeko duten gaitasun handiagatik.
- Zientifikoaren artean **aho batez dago onartuta eragin “ez termikoak” daudela**, industriako ikertzaile prestigioitsu independenteetan ikusten den bezala.
- **Alarma publikoaren gaineko adierazpenak, nazioartean prestigio gehien duten zientifikoek eta ikertzaileek bilkura zientifikoetan handitasunez eginak:** Salzburgo I (2000), Salzburgo II (2002), Londresko Adierazpena (2004), Catania (2002), Friburgo (2002), Alcalá (2002), Benevento (2006), Londres (2007) eta Paris (2008)
- **BIOINITIATIVE delako txostena argitaratu da. Txostenak, batetik, 1500 ikerkuntza zientifiko independente berrikusita ohartarazten du eremu elektromagnetikoen erradiazioen (CEM) eta irrati-maiztasunen (RF) esposizioan luzaro egoteak ondorio larriak eragin ditzakeela. Erradiazio horiek sakelako telefonoek, hari gabeko sistemak, tentsio handiko lineak, transformadoreak eta abarrek sortzen dituzte gaur egun pairatzen ditugun esposizio-mailetan. Beste aldetik, txostenak agintari publiko eta sanitarioei gomendatzen die ahalik eta arinen eta zorrotasunez beharrezkoa orain onartuta dauden esposizio-mailak: kanpoaldean $0.1 \mu\text{W}/\text{cm}^2$ baino maila baxuagoetara, barrualdean $0.01 \mu\text{W}/\text{cm}^2$ baino gutxiago. Beharrezkoa horiek behin behinekoak lirateke, gerora, ikerkuntza berriagoen argitan, murrizketa handiagoetara jotzearen.**
- **Londresko Ebazpenak (2007) aurreko balio horiek berehala ezartzea proposatzen du**, bai eta Salzбургoko Gobernuaren Osasun Publikoko Idazkaritzaren gomendioak (2002) lantzen hasia ere: kanpoaldean $0,001 \mu\text{W}/\text{cm}^2$ ($0,06 \text{ V}/\text{m}$); barrualdean $0,0001 \mu\text{W}/\text{cm}^2$ ($0,02 \text{ V}/\text{m}$) baino gutxiago. Proposamenaren oinarrian dago teknologia horien hirugarren belaunaldiko maiztasunek uhinetan sartzeko duten gaitasun handia.

- **Zenbait tokian aitzindariak izan dira ekimenetan**, Salzburgon kasu, bertan arestian aipatutako mailak lortu baitituzte eta gehiago murrizteko asmoa baitute.
- **Europako Parlamentuak berriki emandako ebazpenek** (2008ko irailean eta 2009ko apirilean) premia eskatzen dute CEMek eragindako arriskuak berrikusteko eta babes-mailak jaisteko.
- **Espainiako Konstituzioak oinarrizko eskubide hauek aitortzen ditu:** Osotasun fisikoarena (15. art.); norberaren eta familiaren intimitatearena (18.1. art.); egoitzaren bortxaezintasunarena (18.2. art.); osasuna babestearena (43.art.).

SALATZEN DUGU:

- **Telekomunikazioen industriaren jarrera eta estrategia.** Izan ere, froga zientifikoak ukatzeko xedea dute (Parisko 2008ko Adierazpena), eta orobat, talde ahaltsuen bidez komunikabideei eta herri-aginte nahiz erakundeei eragin nahi diete froga horien emaitzak ezkutatzeko eta emaitzon araberako legedi murriztailea galarazteko, legedi horrek zabaltze teknologikoa eta CEM igortzen duten azpiegiturak kontrolatu eta herritarren osasuna babestu behar bailuke.
- **Udalen eta gobernu autonomikoen pasibotasuna eta haririk gabeko telekomunikazioen industriaren aldeko jarrera**, biztanleriaren osasun-eskubidea ahaztuta, ez baitiete kasurik egiten herritarren errebindikazioei, nazioarteko ebazpenei eta Europako Parlamentukoei.

Osasunaren eskubidea eta geroko belaunaldiak defendatuz,

ESKATZEN DIEGU:

HERRI AGINTARIEI:

1. **Herritarren osasunaren alde egin dezatela**, industria horren interes ekonomikoak aldeztu ordez.
2. **Osasunaren alderdi guztiei babes handiagoa ematen dieten arauak ezar ditzatela** 1066/2001 Errege Dekretua eta apirilaren 24koa Telekomunikazioen 11/1998 Legea ordezkatzeko, arau horiek, Europar Batzordeak 1999an emandako gomendioei jarraitzen badiete ere, orduan ez baitzeuden gaur egun erkidego zientifikoak CEMen eragin ez termikoen gainean dituen frogak eta zantzuak. **Azpimarratu nahi dugu zuhurtzia-printzioaz, ALATA delakoaz (ahalik eta gutxien igortzea) arautu behar dela eta BIOINITIATIVE txostenak gomendatutako esposizio-mugak berehala ezarri behar direla:** kanpoaldean $0.1 \mu\text{w}/\text{cm}^2$ baino maila baxuagoetara, barrualdean $0.01 \mu\text{w}/\text{cm}^2$ baino gutxiagora murriztea. Eta orobat, Londresko

Ebazpenarekin (2007) bat etorri, gerora gehiago murrizteko konpromisoa arautzea ($0,001 \mu\text{w}/\text{cm}^2$ eta $0,0001 \mu\text{w}/\text{cm}^2$). BIOINITIATIVE txostenari jarraiki, goi-tentsioko lineek eta transformadoreek sortutako eremu magnetikoetarako $0.1\mu\text{T}$ baino maila baxuagoak eskatzen ditugu.

- 3. Igorpen- eta barneratze-mailak (inmisio-mailak) kontrolatzeko sistema fidagarri eta independente bat ezar dezatela**, ikuskaritza-zerbitzu independente baten bidez. Zerbitzuak baliatutako kontrolek kanpokoak izan behar lukete, zientifikoek, medikuek eta herritarrek esku hartuta. Era berean, herritar guztiek igorpenen aldi berean informazioa jaso ahal izateko informazio-sistema bat ere ezarri beharko litzateke.
- 4. Ikerketa zientifiko independenteetan oinarrituta, gutxieneko distantzia biosanitario batzuk ezar ditzatela CEM igorpen-iturriez babesteko, dituzten ezaugarriengatik beharrezkoa den kasuetan**, lehen aipatutako mailak lortzeko.
- 5. Lurzoru-erreserba berezi bat ezar dezatela** beharrezkoa duten CEM igortzen duten azpiegitura eta instalazioetarako, goi-maiztasuna nahiz behe-maiztasuna izanik ere.
- 6. CEM igorpen-iturrien gaineko erregistro publiko eta gaurkotu bat ezar dezatela**, non zehaztuta egon beharko baita igorpen-potentzia erreala, maitasuna keta ezaugarriak.
- 7. Adingabekoen sakelakoaren erabilera arautu dadila, eta Europako Parlamentuaren gomendioekin bat etorri, sakelakoaren eta hari gabeko aparatuen erabilera arduratsua sustatzeko kanpainak diruz laguntzea eta bultzatzea.**
- 8. Estatuko, autonomiako eta udaletako arauen hausteak zigor eredugarriez zigortu daitezela**, eta legekoa kez diren instalazioak ken daitezela.
- 9. WIFI, WIMAX..., sistemen instalazioen gaineko luzamendua dekreta dadila estatu osoan**, eta instalatutako hari gabeko gailuak eta sareak desegin eta hari bidezko konexioekin ordezkatu daitezela.
- 10. Arau sanitarioek elektrohipersentiberatasuna minusbaliatasuna aitortzeko arrazoitzat jo dezatela**, Suedian eta EEBBetan bezala, Europako Parlamentuak berriki

emandako ebazpenek gomendatzen dutenari jarraiki. Aldarrikatzen dugu osasun-zerbitzu publikoei prestakuntza ematea pertsona elektrohipersentiberak diagnostikatzeko eta dagokien ziurtagiria emateko.

11. Sakelakoaren garraio publikoko eta erakunde publikoetako (ikastetxeak, unibertsitateak, ospitaleak, kultur etxeak etab.) **erabilera arautu dezatela.**

12. Irrati-loturak (15Ghz eta 45Ghz bitarteko maiztasuna duten erradar-igorgailuak, oso arriskutsuak) eta hirietan **ehun optikoaz ordezkatu daitezela** eta, ahal den neurrian, baita baserri aldean ere.

13. Ikerketa epidemiologikoak diruz lagundu eta bultzatu daitezela, frogatuta independentzia duten zientifikoek eginak, eta herritarrek nahiz ukituen elkarrekin parte hartuta.

14. Konpaniak behartu ditzatela muga gabeko erantzukizun zibileko eta erantzukizun penaleko aseguruak edukitzera, edo Estatuak lege bidez hori bermatu dezala.

GOMENDATZEN DIEGU

HERRITARREI, industriatik independenteak diren iturrietan informazioa eskatzea, osasuna arriskuan egonez gero, beren burua babestea, besteekin elkartu eta osasun-eskubidea aldarrikatzea. Gomendatzen diegu etxean ere arriskuak gutxitzea, hari bidezko teknologiei lehentasuna emanez eta hari gabekoak baztertuz (Haria WIFI ordeztu, telefono finkoak DECT hari gabekoen ordeztu).

AUZOKO ERKIDEGOEI teiltuetan antenarik ez jartzea eta instalatutakoen kontratuak deuseztatzea, harik eta oraingo arriskuak minimizatzen dituzten mailak bermatu arte.

SINDIKATUEI, parte hartzea arriskuak minimizatzeko lanean, **lan-osasunari** ere eragiten diote eta.

MEDIKUEI ETA OSASUNKO PROFESIONALEI, independenteak diren iturrietan informazioa eskatzea eta herritarren osasunaren aldeko mugimenduetan parte hartzea.

HEDABIDEI, industriaren interesek eragindako informazio-alborakuntza ekiditea eta egiazko informazioa eta adierazpen-askatasuna zaintzea.

SAKELAKO TELEFONOEN INDUSTRIARI, jarrera aldatu eta, gardentasunez eta herritarren osasunaren alde jokatzuz, eztabaida publikoan parte hartzea. Orobat gomendatzen diegu arriskuak minimizatzen dituzten teknikak ekartzea eta beren mozkin astunetatik batzuk oraingo arriskuak minimizatzen dituen sistema bat jartzea.

ELIZARI, kontuan hartzea, elizetan edo instalazioetan antena bat jarri nahi dutenean, ondoan bizi diren herritarrak eta antolatzen dituzten ekitaldietan parte hartzen dutenak.

KONTSUMITZAILEEN ELKARTEEI, eremu elektromagnetikoen teknologiak erabiltzen dituztenen osasun-eskubideak ere aldarrikatzea, osasunaren eskubidea beren oinarritzko printzipioetatik bat da eta.